



LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2023KO OTSAILAREN 16KO EBAZPENA, ZUZENDARI BERARENA 2023KO URTARRILAREN 17KO EBAZPENA ALDATZEN DUENA: EUSKAL AUTONOMIA ESTATU MAILAKO ADMINISTRAZIOKO BIGARREN HEZKUNTZAKO, HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALETAKO, MUSIKA ETA ARTE ESZENIKOETAKO ETA ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO KATEDRADUN ETA IRAKASLEEN KIDEGOETAKO ETA LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOEN IRAKASKUNTZA-KIDEGOETAKO FUNTZIONARIOEN ESTATU MAILAKO 2022/2023KO LEKUALDATZE-LEHIAKETAN ONARTUTAKOEN, MEREZIMENDUEN PUNTUAZIOAREKIN, ETA KANPOAN UTZITAKO PARTE-HARTZAILEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ARGITARA EMATEN DUENA.

AURREKARIAK

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2022ko abenduaren 12ko Ebazpenaren bidez argitara eman ziren Euskal Autonomia erkidegoko administraziooko Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen Kidegoetako eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen irakaskuntza-kidegoetako funtzionarioen estatu mailako lekualdatze-lehiaketan onartutakoen eta kanpoan utzitako behin-behineko zerrenda, eta merezimenduen baremoan lortutako puntuazioak.

Ondoren, zuzendari beraren 2022ko urtarrilaren 17ko Ebazpenaren bidez, argitara eman Euskal Autonomia erkidegoko administraziooko Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen Kidegoetako eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen irakaskuntza-kidegoetako funtzionarioen estatu mailako 2022/2023ko lekualdatze-lehiaketan onartutakoen eta kanpoan utzitako behin betiko zerrenda, eta merezimenduen baremoan lortutako puntuazioak. Era berean, ebazpen horrekin batera, baietsitako eta ezetsitako erreklamazioen zerrenda ere argitaratzen da, eta, azken kasu horretan, ezesteko arrazoia ere bai.

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko urriaren 7ko Aginduak (EHAA 2022ko azaroak 14), estatu-mailako lekualdatze-lehiaketarako deialdia egiten duenak, honako hau ezartzen du hemeretzigarren oinarriko 1. a) letran: Lehiaketa honetan borondatez parte hartu ahal izango dute jarraian adierazten diren egoeretako batean dauden karrerako irakasle funtzionarioek:

“a) Jarduneko egoeran daudenek, EAEko Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxeetan behin betiko destinoarekin, baldin eta behin betiko azken destinoaz lehiaketa bidez jabetu zirenetik aurtengo ikasturtearen amaierara arte gutxienez bi urte iragan badira.”

Beraz, lekualdatze-lehiaketaren deialdiko hamargarren oinarriko 1.a) atalean ezarritakoa ez betetzeak lekualdatze-lehiaketan parte hartzetik baztertzea dakar. Ohartarazi da honako parte-hartzaile hauek 2021-2022 lekualdatze-lehiaketan lortu zutela destinoa, 2022ko irailaren 1etik aurrerako ondorioekin, eta, hala ere, onartutako parte-hartzaileen behin betiko zerrendan agertzen direla:



- DEL PORTILLO LÓPEZ, IRANTZU
- ECHAVARRI SAEZ, JOSÉ MANUEL
- REMEDIOS MAULEON, MARIA
- SEDANO ARANES, BORJA
- ZUBERO COLINA, LEIRE

Horrenbestez, eta aipatutako 2022ko urriaren 7ko Aginduan ezarritakoarekin bat etorritz, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko urtarrilaren 17ko Ebazpena bi gairi dagokionez aldatzea, zeinaren bidez argitara ematen da EAEko Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko katedradun eta irakasleen kidegoetako eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen irakaskuntza-kidegoetako funtzionarioen estatu-mailako 2022/2023ko lekualdatze-lehiaketan onartutako eta kanpoan utzitako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda eta merezimenduen baremoa:

“Onartutako parte-hartzaileen zerrenda alfabetikoki ordenatuta”, “Onartutako parte-hartzaileen zerrenda puntuazioaren arabera ordenatuta” eta “Onartutako parte-hartzaileen zerrenda espezialitatearen arabera” zerrendetan ez dira agertu behar honako hauek:

- DEL PORTILLO LÓPEZ, IRANTZU
- ECHAVARRI SAEZ, JOSÉ MANUEL
- REMEDIOS MAULEON, MARIA
- SEDANO ARANES, BORJA
- ZUBERO COLINA, LEIRE

Era berean, aurreko paragrafoan adierazitako pertsonen Baztertuen eta baztertuen behin betiko zerrendan agertu behar dute, honako arrazoi honengatik: F: “Ez ditu bi urte egin behin betiko gisa lehiatzen duen unean dagoen ikastetxean”.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko otsailaren 16an

**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA
BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO**